

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

51/2025 Foru Agindua, apirilaren 16koa. Karrerako funtzionario izendatzea karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, erdi-mailako teknikari klasea, 11017 deialdia, haur-hezitzailea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko lan-eskaintza publikoaren egonkortze-prozesu bereziari dagokiona

Onartzea, abenduaren 26ko 172/2022 Foru Agindua (maiatzaren 25eko 84/2023 Foru Aginduak aldatua) zeinaren bidez oinarri orokorrak onartzen baitira aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari dagokiona.

Aipatutako foru-aginduaren 11. oinarrian xedatutakoaren arabera, 9. eta 10. oinarrietan aurreikusitako izapide guztiak amaituta, epaimahai kalifikatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu-atarian argitaratuko du hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/), eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen gisa, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuari helaraziko dio.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari (egonkortze-prozesu berezia) dagokion administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, erdi-mailako teknikarien taldean, sartzeko deialdiari dagokionez (11017ko deialdia, haur-hezitzailea), epaimahai kalifikatzaileak, 2025eko apirilaren 14an, izendapen-proposamen gisa hautatutako pertsonaren behin betiko zerrenda aurkeztu du.

Oinarri orokor horietako hamabigarrenean aurreikusitakoaren arabera, behin izendapen-proposamena hautatuen behin betiko zerrendaren bidez jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuari dagokio, foru agindu bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izendatzea behin betiko zerrenda horretako kideak.

Aipatutako oinarri orokorrak betez eta funtzio publikoaren arloan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duena,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario izendatzea ondoko pertsona hau, administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikari klasea, haur-hezitzailea, eta adierazitako lanpostuari atxikita Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko lan-eskaintza publikoaren egonkortzeko prozesu bereziari dagokiona:

NAN	LANPOSTUA
44680663	25.033 Haur-hezitzailea

Bigarrena. Izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horri hamabost (15) egun naturaleko beste bat gehitu ahal izango zaio izangaiak hala eskatzen badu, betiere, ezinbesteko arrazoi justifikatua tartean bada. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen funtzionario-izaera eskuratzeko eskubide guztiak galduko ditu, deialdiaren ondorioz.

Hirugarrena. Funtzionario sartu berria behin betiko atxikiko zaio esleitutako lanpostuari, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakotzat hartuko da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari loturik– aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

MIREN SARATXAGA DE ISLA